

ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA



TITULAZIO OFIZIALA

- > 600 ORDU.
- > IKASTURTE AKADEMIKO 1.



SARTZEKO BALDINTZAK

- > Mahastizaintzako eta Ardogintzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Turismo-ostatuak Kudeatzeko Goi-mailako Teknikaria.
- > Bidaia-agentzietako eta Ekitaldien Kudeaketako Goi-mailako Teknikaria.
- > Turismo-gidaritzako, -informazioko eta -laguntzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko Goi-mailako Teknikaria.
- > Zuzendaritzari Laguntzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Administrazio eta Finantzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Marketin eta Publizitateko Goi-mailako Teknikaria.
- > Garraioko eta Logistikako Goi-mailako Teknikaria.
- > Salmentak eta Merkataritza-espazioak Kudeatzeko Goi-mailako Teknikaria.
- > Nazioarteko Merkataritzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Ile-apainketako Estilismo eta Zuzendaritzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Ikus-entzunezkoen eta Ikuskizunen Produkzioko Goi-mailako Teknikaria.
- > Irudi Pertsonalaren eta Korporatiboaren Aholkularitzako Goi-mailako Teknikaria.
- > Argitalpen Inprimatuen eta Multimedia Argitalpenen Diseinuko eta Edizioko Goi-mailako Teknikaria.
- > Produkzio Grafikoaren Diseinuko eta Kudeaketako Goi-mailako Teknikaria.

MARKETINERAKO ETA SALMENTARAKO EDUKI DIGITALAK IDAZTEKO ESPEZIALIZAZIO- IKASTAROA

IKASKETA-PLANA

Espezializazio-ikastaro honetako lanbide-moduluak honako hauek dira:

- > Eduki digitalen estrategia.
- > Sare sozialetako komunikazioa.
- > Eduki digitalak idaztea.

PROFESIONAL HAU GAI IZANGO DA:

- > Eduki digitalen estrategia bat planifikatzea, gauzatzea eta optimizatzea markak kokatzeko, bezeroak erakartzeko eta diru-sarrerak handitzeko, publizitatea idazteko metodoak, teknikak eta tresnak erabilia.

Honela lan egin zenezake:

Lanbide Heziketako Masterraren titulua dutenak edo espezializazio-ikastaro hau gainditu izana egiaztatzen duen bertaratze-ziurtagiri akademikoa lortu dutenak marketinean, komunikazioan eta online-salmenta komertzialean zein industrialean diharduten sektore ekonomiko guztietan aritu daitezke lanean, bai eta hornidura-katearen maila guztietan ere.

- > Marketin digitaleko zuzendariak (Digital Strategist).
- > Hazteko marketineko zuzendariak (Growth Marketing Director).
- > Merkataritza elektronikoko zuzendariak (e-Commerce Manager).
- > Bezeroak lortzeko eta atxikitzeko espezialistak (Inbound Marketing Specialist).
- > Edukien kudeatzaileak (Content Manager).
- > Publizitate-testuen erredaktoreak (Copywriter).
- > Sare sozialen eta komunitate digitalen kudeatzaileak (Community Manager).